

**ETC TERA**

TEATRO, MÚSICA, TÍTERES

# ANDER- SEN, EL PATITO FEO

**GIDA  
PEDAGOGIKOA**

**ETCETERA**  
TEATRO, MÚSICA, TÍTERES

**Andersen.**  
**el patito**

**FEO**

HANS  
CHRISTIAN  
ANDERSEN EN  
IPUINEAN  
OINARRITUA

DIRECCIÓN: *Enrique Lanz* ZUZENDARIA

MÚSICA: *Jordi Cornudella* MUSIKA

COPRODUCCIÓN

**ETCETERA**  
TEATRO, MÚSICA, TÍTERES

Centro Federico García Lorca

CON LA COLABORACIÓN DE





## Aurkibidea

- 1.- Aurkezpen orokorra
- 2.- Jakingarri orokorrak
- 3.- Edukiak
- 4.- Jarduerak
- 5.- Konpainia



# 1. Aurkezpen orokorra





«ANDERSEN, AHATETXO ITSUSIA»-REN GIDA PEDAGOGIKOA

## Aurkezpen orokorra

Ikuskizun hau 4 urtetik gorako publiko ororentzat da, familia-emanaldietan ikusteko. Eskola-emanaldietarako, ikasle hauentzat izan daiteke:

**Haur Hezkuntzako 2. ziklokoak (4-6 urte)**

**Lehen Hezkuntzakoak (6-12 urte)**

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 1. ziklokoak.**

Gure konpaniaren lanean, haurrentzako ikuskizunak ez ezik, bestelako adin-tarteetarako ere egiten ditugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu haurrak eta helduak elkarrekin joatea antzerkira, zuzeneko ikuskizunak diren paregabeko esperientzia partekatzea eta gozatzea. Helduak aspertuta daudenean, haurrak konturatu egiten dira, eta ez da ona. Helduak adi badaude, ordea, eta ikuskizuna elkarriketarako eta ikaskuntzarako motiboa bada, esperientzia gogoangarria izango da denentzat.

Oro har, Espainian, ikusleen artean adingabeak dituzten emanaldietan obra ikusteko adin-tarte egokia gomendatu ohi da, eta garrantzitsua da umeak antzerkira eramaten dituzten helduek kontuan hartzea, publikoari eta artistei zor zaien errespetuagatik. Zergatik? Adin bateko eta besteko umeak oso desberdinak direlako, batez ere arretari eusteko eta kontzentratuta egoteko denboragatik. Esate baterako, ikuskizun bateko protagonista musika izanik ondo entzutea garrantzitsua denean, haurtxo baten negarra gogaikarria izan daiteke bai ikusleentzat bai antzezleentzat. Beste bateko hizkuntza edo gaia berariaz haurrentzat denean, baliteke nerabeengan inolako interesik ez sortzea eta arretarik ez jartzea, "ez duelako eurekin zerikusirik".

Izan senideak edo irakasleak, helduek ezagutzen dituzte beren ardurapean dituzten adingabeak, badakite egoera jakin batzuetan nola erreakzionatzen duten eta, beraz, haiek dira gidaririk onenak gertakari eszeniko batez gozatzea den abentura zirrargarri honetan.

Fitxa pedagogiko honen bidez, batez ere irakasleak suspertu nahi dira, ikuskizunera joatea ikasgelako bizitzako une esanguratsua bihurtzeko eta haurren sentsibilizazio artistikoa areagotzen laguntzeko tresnak izan ditzaten. Emanaldia ikusi aurreko prestaketa ahalbidetzeko baliabide gisa sortu da, ikasleen adinak kontuan hartuta. Agertokian ikustea espero duten horretarako sarrera edo prestaketa izan nahi du, obra artistikoa gozatzeko eta ulertzeko helburuz. Hortaz, ikuskizunera joan aurreko eta osteko lanerako laguntza izan nahi du.



Irakasle bakoitzak bere ikasleen maila eta aukerak ezagutzen dituzenez, gida honetako edukiak hautatu eta haien behar zehatzetara egokitu ahal izango ditu.

Hiru bloketan egituratu da, honela:

1. Informazio-sarrera orokorra
2. Edukien blokea, hainbat jakingarriz osatua
3. Ikasleentzako jardueren blokea (irakasleek koordinatua)







## 2. Jakingarri orokorrak







## Antzerkira joateko esperientzia

Ikastetxe batek ikasleak antzerkira eramaten dituenean, beste mundu baterako atea irekiko balitz bezala da, edertasunerako deia, beste ordena harmoniko baterako deia. Baina ez dugu ahaztu behar ikasle askorentzat antzerkira doazen lehen aldia izan daitekeela. Baliteke batzuk ohikotasunez joatea beren familiarekin, antzerkia beren aisialdiaz goatzeko aukera bat izatea, afektuak eta atxikimenduak sustatzeko esperientzia positibo gisa. Beste batzuk —tamalez, gehiengo—, aldiz, eskolak aukera ematen duenean baino ezingo dira joan antzerkira, eta horregatik dira hain garrantzitsuak eskola-programazioak, arteaz eta kulturaz gozatu ahal izateko berme demokratikoa direlako.

Kasu guztietan, komenigarria da ikasleak antzerkira joatea den esperientzia, bidaiak eta abentura horretarako prestatzea. Horretarako, hona hemen zenbait gomendio:

- Ikastetxearen eta antzerkiaren arteko joan-etorria ondo planifikatzea, eta nola edo hala ikuskizunarekin erlazioa badaiteke, hobeto.
- Antzokiari buruzko informazioa bilatzea: haren historia, itxura, guneen izenak, gune bakoitzaren bitxikeriak.
- Ikusiko den obraren, konpainiaren eta antzezleen berri izatea, eta, ahal dela, ondoren artistekin egingo diren topaketetan parte hartzea.
- Familiei esperientziaren berri ematea, lan hau etxean indartu eta osatu ahal izateko.
- Ikuskizuna amaitzen denean, emozioak ikusle bakoitzaren barruan geratzen dira. Irudiak, pertsonaiak eta gaiak norberaren esperientzia pertsonalarekin nahasten dira. Hala, esplorazio artistikorako bide berriak sortzen dira, gero ikasgelan jorratu eta aberastu ahal direnak.

Finean, esperientzia hau emanaldi aurrekoan, bitartean eta ostekoan egituratuta dago.



JAKINGARRI OROKORRAK

## Antzerkia: hemen eta orain

Antzerkia orainaldian, "hemen eta orain", gertatzen den paregabeko errituala da beti. Ezaugarri horrek beste lengoia artistiko batzuetatik bereizten du, hala nola zinematografikotik edo literariotik. Esperientzia jendaurrean antzezten denean baino ez da burutzen.

Aktoreak, musikariak, abeslariak, dantzariak, oholtzan dagoen pertsona horrek, kontzentrazio-lan handia egin behar du. Komunikazio-ekintza ezin hobeia izan dadin, interpreteak beren energia guztiaz baliatzen dira. Biharamunik ez balego bezala da, beren bizitza osoa orainaldiko une hori balitz bezala. Horretarako, ikasi eta prestakuntza jasotzen dute, entrenatu egiten dira, entseguak egiten dituzte, kontzentratu egiten dira.

Konpainia batek, emanaldia eskaini baino lehen, lan eskerga egin behar du: hainbat hilabetez datak eta kontratuak hitzartzeko izapideak, dozenaka dei eta mezu elektroniko, posta-bidalketak, emanaldia eskainiko den lekura iristeko bidaiak (batzuetan, herrialde osoa zeharkatzen da gure etxeetatik eta familiengandik 900 km-ra dagoen toki batean antzezteko), entseguak, muntaia-ordu luzeak.

Eta hori guztia baino lehen, erditzea dago. Sarri esaten da ikuskizun baten estreinaldia erditze zaila bezalakoa dela. Sortzaileak eta ikusleak elkartu aurretik, lan-prozesua luzea eta, oro har, bizia izan da. Ikuskizun bat sortzeak, gure kasuan, bizi-premia bati erantzuten dio, erraietan sentitzen dugun behar bati, mundu honetan izatearekiko eta egotearekiko konpromisoa da. Antzerkia sortzeko lanak alaitasuna eta larritasuna dakartza, gogobetetasuna eta frustrazioa, sakrifizio pertsonal asko, eta maila artistiko, etiko, tekniko, ekonomiko eta politikoan arrisku handia hartzea. Hilabeteak, baita urteak ere, ematen ditugu ideia bat zehazten, ordu amaigabeak tailerrean txotxongiloaren keinu zehatza bilatzen, zehaztasuna artikulazio batean, produkzio-gastuak aurreratzeko banku-kredituak eskatzen, obra bakoitzerako lantalde "ideala" osatzen, gero "izakia" hartu nahi izango duten antzokien artean konplizeak bilatzen, eta, horrela, sorkuntza bakoitzean lehen aldia balitz bezala gainditu behar ditugun oztopoen zerrenda amaigabea.





Horregatik, "hemen eta orain" unea iristen denean, antzezpena ia sakratua bihurtzen da; bertan parte hartzen dugun guztiok dena ematen dugu ondo, bikain, atera dadin. Eta, hala eta guztiz ere, ikusleen zenbait keinuk arriskuan jar dezakete guztia: sakelako telefono baten hotsa antzezlaren erdian, gailu elektronikoen pantailen argia, haurtxoen negarrak (ez direnean haien adinerako ikuskizunak), aretoan zineman edo parkean baleude bezala jaten eta edaten dutenen zarata, irakasleen "ixo" eta errietak antzezlaren erdian, bideo-grabazioak, argazkien flashak, umeak gauza bat balira bezala tratatzen dituzten helduak: antzokian "aparkatu", "beren gauzak egitera" joan, eta emanaldiaren amaieran jasotzen dituzte; eta, horrela, lanbide honetan dihardugunok maizegi pairatzen ditugun gorabeheren zerrenda tamalgarria.

Horrexegatik da oso garrantzitsua irakasleek hori guztia ulertzea, kontu nabarmenak izan arren, gero haur eta gazteei erakutsi ahal izateko, beren jokabide adeitsu eta kontzientea eredu.

### Gure aholkuak:

- ikasleen batez besteko adinerako ikuskizun egokiak hautatzea
- komunera joan edo edan nahi duten ikasleek ikuskizuna hasi baino lehen egin dezaten bultzatzea, ez behin hasita dagoenean
- emanaldira etortzea eta ez uztea ikasleak bakarrik beste zerbaitegitera joateko
- sakelako telefonoak eta gailu elektronikoak itzaltzea
- ez egitea ez argazkirik ez bideo-grabaketarik (flasharekin edo gabe)
- obra antzetzu bitartean ez hitz egitea, jatea eta edatea

### Gure iradokizunak:

- Aldez aurretik obrari buruzko informazioa eskuratzea, baina ez ikasleei xehetasun guztiak azaltzeko eta horrela ekintza artistikoaren aurrean haien harritzeko gaitasuna deuseztatzeko, baizik eta jakin-mina pizteko eta suspertzeko galderak egitearren.

«Andersen, ahartetxo itsusia» ikuskizunaren kasuan, adibidez:

Izenburuak zer iradokitzen du?

Nor da Hans Christian Andersen?

"Ahetetxo itsusia" ipuina ezagutzen zuten lehendik?

Zer oroitzen dute ipuinetik?

Egilearen zein beste ipuin ezagutzen dituzte?



- Emanaldiaren ondoren, ikuskizunean jorratutako gaiak elkarrizketarako akuilu izan behar dira, batik bat zailagoak edo desatseginagoak izan daitezkeenak. Antzokiak elkarrizketarako leiho zoragarria irekitzen du, eta frogatuta dago eraginkorra dela gatazkak konpontzeko.

Esate baterako, «Andersen, ahatetxo itsusia» obraren kasuan, arteak duen garrantziaz hitz egin daiteke, jolasaz ideiak eraikitzeko eta gauzatzeko elementu sortzaile gisa, desberdina mespretxatzeaz, pobreziaz eta marjinazioaz. Ikuskizunak plataforma zoragarria eskaintzen du gaurkotasuneko gatazkei buruz hitz egiteko, hala nola bullyinga, mota orotako jazarpena, baita autoestimua eta auto-onarpena ere.

- Ikuskizunak hizpide dituen gaiak curriculumeko edukiekin lotzea. Kasu batzuetan, lotura hori nabariagoa izan daiteke, baina denetan aurki daiteke irakasgai bakoitzarekiko erlazioa.



# Andersen, el patito feo





«ANDERSEN, AHATETXO ITSUSIA»-REN GIDA PEDAGOGIKOA

## 3. Edukiak





## EDUKIAK

# Planteamendua eta dramaturgia

Hans Christian Andersen (Odense, 1805 — Kopenhage, 1875) haurrentzat idatzi zituen ipuinengatik da ezaguna mundu osoan. «Ahatetxo itsusia» kontakizunaren egileak aitortu zuen behin bere benetako biografia alegia hori idaztea izan zela. Denok ezagutzen dugu istorioa eta, mitoak bezala, barruan entzuten dugu oraindik ere, hunkitu egiten gaitu, eta, urteek aurrera egin arren, gogoeta sakonak transmititzen dizkigu.

Andersen bizi ez zen batere samurra izan: familia oso xumean eta aukera urrikoan jaio zen. Fisikoki, ez zen gainerako umeak bezalakoa (handia, sudurluzea eta truskila zen), eta bere baldarkeriagatik eta behe-maila sozialagatik jazarpena eta erdeinua jasan zituen. Hala ere, irakurketan, antzerkian, txotxongiloetan eta ebakigarrietan babesa aurkitu zuen.

Antzerkiarekiko lilurak, irakurketa ozenez familian eta aitzak baliabide gutxirekin zizelkatzen zizkion zuzeko panpinek barne-mundu handia sortu zioten, bere buruarengan sinetsarazteko eta gero idaztea ahalbidetuko zion irudimen ahaltsua garatzeko modukoa. Ahatetxo itsusia, Odenseko haur mesprextatua, zisnea izan zen beti, nolabait.

«Andersen, ahatetxo itsusia» ikuskizuna ipuin ezagunean oinarrituta dago, baita idazleak bere autobiografian jaso zituen haurtzaroko gertakarietan ere..

Formatu txiki-ertaineko ikuskizuna da. Berrogeita hamar minutu inguru irauten du, eta bederatzi antzezle daude agertokian. Horretarako, ondoen erabiltzen ditugun instrumentuez baliatuko gara: txotxongiloak eta musika.

Ikuskizunaren dramaturgia Enrique Lanzen eta Yanisbel V. Martínezen esku dago. Eszenak narrazio labur batekin eta, batez ere, zuzeneko musikarekin laguntzen dira, txotxongiloen ekintza argien bidez eta elementu bisualekin osatuta, hala nola bideoa edo argiztapena, objektuen adierazpen-gaitasuna ahalik eta gehien indartzeko asmoz.

Nahiz eta pertsonaiak ez diren testu batean oinarrituta mintzatzen, dramaturgia-egitura sendoa dago, gehienbat musikaren bidez eratua, biolin, biola, klarinete, fagot eta pianoz osatutako ganbera-orkestra batek jota.



Instrumentuen artean, saxofoi bat ere bada, ahatetxoa irudikatzen duena, bai haren formak zisnea gogoraz diezagukeelako bai duen tinbreagatik; izan ere, haize-instrumentuen artean rara avis da, eta ez dago orkestra klasikoan.

Narratzailearen pertsonaiak Ana María Matute du inspirazio. Idazle ospetsuak, 2010eko Cervantes saria jasotzean eman zuen hitzaldian, Anderseni buruz hitz egin zuen, eta berak idatzi zuen Alianza argitaletxeak 1973an plazaratutako «Itzala eta beste ipuin batzuk» obraren ediziorako «Hainbeste ipuin dakizkien gizon hori» hitzaurre ederra. Ikuskizuna hiru mailatan egituratuta dago: batean, hizlari bat Danimarkaz eta Andersenez mintzatuko zaigu; beste batean, orkestra eta musikariak daude; eta, hirugarrenean, ipuina garatzen da txotxongiloekin.

Galdera hauek egingo dizkiogu geure buruari: Zer da edertasuna? Non dago? Zergatik ez dugu onartzen desberdina?

Nola biltzen da ametsak betetzeko indarra, besteen artean tokirik ez dugula sentitzen dugunean?

## EDUKIAK

### Zergatik egin gai honi buruzko ikuskizuna?

Gure ustez, ipuin herrikoiek ez dute gaurkotasuna galtzen. Eta honek, zehazki, edertasunaz ikuspegi filosofikotik hausnartzeko aukera ematen digu, ederra edo ona denaren gaineko publizitatez eta irudiz jositako gizarte honetan etengabe zeharkatzen gaituen azaleko zerbait hori gisa ulertzen dugun edertasunetik urrun.

Edertasuna lotuago dago barne-munduarekin, edo Andersenek bere burua zisnearen bitartez horrela erretratatu nahi izan zuelakoan gaude. Gaur egungo umeentzat, sare sozialen eta pantailen eragin izugarriaz hazten ari direnentzat, iruditeria propioa eraikitzea eta besteren barne-edertasuna ikusiz hunkitzea beharrezkoa iruditzen zaigu, eta, nolabait, garapen artistikoarekin, intelektualarekin eta, nagusiki, humanoarekin lotutako balioen hazkundera sustatzen du.



## EDUKIAK

### Ipuinen boterea

Ipuinak beti existitu izan dira, mundua ulertzeko eta besteei azaltzeko modu bat dira. Lehen ipuinak gure arbasoen labar-pinturetan aurkitu genituen, non kanpoan ikusitakoa besteei kontatzen zieten; edo, beharbada, gertaerak asmatzen zituzten, edo baliteke izakiak irudian islatuz haiek ulertzen edo ohoratzen zituztela uste izatea.

Mitoeak, kulturetan, munduaren jatorria, gizakion patua, jainkoak nor diren, izadia zer den eta gure sentimenduek zer esan nahi duten azaltzen dute. Bada, ipuinak gertuko mito txiki horiek dira, norbaitek asmatzen dituen mito horiek, eta bertan pertsonaiek, fantasiaren eta errealtatearen artean beti, gure alderdi batekin konektatzen dute eta ikasbide edo gogoeta bat erakusten digute.

Ipuinak edertasunez beteta daude, eta Andersenek, zehazki, urteetan iraun dute, beren formaren sinpletasunagatik eta mamiaren sakontasunagatik bai helduak bai haurrak hunkitu baitituzte.

## EDUKIAK

### Hans Christian Andersen

(Odense, 1805eko apirilak 2 — Kopenhage, 1875eko abuztuak 4)

Idazle eta poeta daniarra izan zen, haurrentzat idatzi zituen ipuinengatik ospetsua, besteak beste: “Ahatetxo itsusia”, “Sirenatxoa”, “Enperadorearen jantzi berria” eta “Elurretako erregina”..

Zapatari xume baten semea, laster ikasi zituen hainbat lanbide, nahiz eta ez zuen bat bera ere amaitu. Hamalau urte zituenean, Kopenhagera joan zen, diru gutxirekin, aktore eta abeslari gisa aberasteko asmoz. Obra batzuk idatzi eta hala gabeziak nola desengainuak bizi izan ondoren, herrialdeko pertsona famatuen interesa piztea lortu zuen, eta haiek arduratu ziren bere prestakuntzaz. Andersenek beti sentitu zuen bere jatorri apala eragozpena zela berarentzat, eta jaun garrantzitsu baten sasiko semea zela amesten zuen.

Eleberriak, olerkiak eta antzezlanak ez ezik, «Nire bizitzaren ipuina» (1855) izeneko autobiografia ere idatzi zuen, eta bidaia-liburu baliotsuak ere argitaratu zituen, bere esperientzietan oinarrituta. Izan ere, hamar urte inguru eman zuen bidaiatzen, beste herrialde askoren artean Alemania, Britainia Handia, Turkia eta Espainia bisitatu zituen.

Bidaiatzen zuenean, soka bat eramaten zuen beti mailetan, suteagatik leihotik ihes egin behar bazuen ere. «Poeta baten bazarra» (1848) bere bidaiarik luzeenaren emaitza da. 1851n, Suedian zehar bizi izandakoak argitaratu zituen, eta 1862an, berriz, Espainian egin zuen egonaldikoak.



Dena den, Hans Christian Andersen haurrentzat idatzi zituen ipuinengatik da ezaguna, batik bat; horietako batzuk Eskandinaviako ipuin eta elezaharretan oinarrituta daude, baina gehienak berak asmatu zituen, eta aparteko irudimen, umore eta sentsibilitatea dute bereizgarri.

## EDUKIAK

### Txotxongiloak eta eszenografia

Proposamen eszenografikoaren premisak eraldaketa eta sorpresa dira. Adibidez, bastidore mugikorak (horien gainean, sakonera indartzen duten hainbat plano sortzen dira), argi- eta itzal-jokoekin uztartzen ditugu (harritzen eta ipuinetako giroa, irudimena eta magia, irudikatzen duten efektuak lortzeko).

Eszenografia Andersenek gustuko zuen beste jolas batean oinarrituta dago: paperezko ebakigarriak. Idazleak forma fantastiko eta bitxiak zituzten ebakigarri ugari utzi zituen, zeinak ipuineko pertsonaiak biltzen dituen paisaia eszenografikoa eraikitzeko berreskuratu ditugun. Gainera, istorio osoa egurrezko antzokitxo batean gertatzen da, XIX. mendean oso-oso modan jarri ziren jostailuzko antzoki zahar haien modukoan. Andersenek horrelako bat eduki zuen, aitak egin ziona, eta bertan hasi zen bere irudimena hegari egiten.

Ikuskizuneko txotxongiloak antzinako zurezko jostailuetan oinarrituta daude. Andersenek beraren esanetan, aitak eta aitonak zurezko figuratxo asko zizelkatzen zizkioten bere egurrezko antzokitxoan jolasteko, eta horregatik izan ditugu halakoak inspirazio. Hagaxkaz egindako txotxongiloak dira, 0,80-100 cm ingurukoak.

Eszenografiak, metamorfizatzen eta lekuz aldatzen denak, eta txotxongiloen mugimenduak harridura eta lilura eragin nahi dituen koreografia sortzen dute; horrela, proposameneko edukiak zirrara eta enfasi handiagoz heltzen zaizkie ikusleei.

## EDUKIAK

### Musika

Musika da proposamen honen arima, Jordi Cornudella Heras (Terrassa, 1989) konpositorearen lana. Klarinetista ere bada, eta oholztan jotzen egongo da.

Musika deskribatzailea da, belarrirako atsegina, haurrentzat eta helduentzat egokia. Eszenarako konposatua, ekintzez, eszenatoki eta pertsonaien aldaketez, aldatuez... erraz jabetzea ahalbidetzen du.







Murtra Ensemblek joko du musika, duela urte askotatik gurekin lankidetzan diharduen taldeak. Esan bezala, biolinak, biolak, klarineteak, fagotak eta pianoak osatuko dute ganbera-orkestra, eta saxofoiak ere parte hartuko du, nolabait ahatetxo itsusiaren ahotsa irudikatuz.

## EDUKIAK

### Argiztapena eta diseinua

Honelako ikuskizuna egiteko, hainbat diziplinatako profesional ugarik esku hartu behar dute. Agertokian ikusten ditugun antzezle eta musikariaren atzean, beste pertsona batzuen lana dago, argiztapenaz edo jantzien diseinuaz arduratzen direnena, kasu.

Argiztapena Lía Alvesen esku dago. Obra zehatz-mehatz aztertu ondoren, eta Enrique Lanz zuzendariarekin batera, une bakoitzean izan behar diren argiak imajinatzen ditu.

Batzuetan, argiztapenaz ari garenean, sorten, kearen eta koloreen aldaketak datozkigu burura, baina hori baino gehiago da. Honelako ikuskizunetan, argiztatzailerak erantzukizun handia du, berak erabakitzen baitu zer eta zenbat ikusiko den. Foku-motak, horien posizioak, intentsitateak, efektuak eta abar aukeratu behar ditu. Asko du ezkutatzeko, halaber, txotxongilolariak ez dago kienean ikus ez daitezen. Izan ere, argiak ere kontatzen eta konposatzen du, giroak sortzen eta emozioak transmititzen ditu. Aldaketa bakoitza denboran neurtuta dago, eta bere dramaturgia-arrazoia dauka.

Jantziak Laura Leónek diseinatu ditu. Gure proposamenetatik abiatuta, pertsonaiak nola egon behar diren jantzita irudikatzen du, animaliak izanagatik ere gorputzak, buruak eta pertsonen arropak baitituzte. Kontraste horrek umore-ukitua dakarkigu, baina edertasunaren eta itxuraren ideiei buruzko beste metafora batzuk eratzera ere bagaramatza.

Laurak XIX. mendeko Danimarkako moda izan zuen inspirazio-iturri, eta jantziak oihalkiekin eta forma ugariko elementuekin sortu zituen, Andersenentzako antzera, hark bere panpinentzako arropak txatalez josten baitzituen. Lauraren jantziak zehaztasun handiz eginak daude, xehetasunez josita.



«ANDERSEN, AHATETXO ITSUSIA»-REN GIDA PEDAGOGIKOA

## Fitxa artistikoa

Eszena-zuzendaritza, eszenografia-diseinua, txotxongiloak eta bideoa:

**Enrique Lanz**

Dramaturgia:

**Yanisbel Victoria Martínez eta Enrique Lanz**

Musika:

**Jordi Cornudella**

Argiztapen-diseinua:

**Lía Alves**

Jantzien diseinua eta joskintza:

**Laura León**

Eszenografiaren eta txotxongiloen eraikuntza:

**Elena Alejandre, Cristina Colmenero, Enrique Lanz, Leo Lanz eta Christine Mackenzie**

Ehun-gaien joskintza:

**Genoveva Morillas**

Aholkularitza teknikoa:

**José Carrión**

Aktoreen trebatzailea:

**Rey Montesinos**

Off-eko ahotsa:

**Enrique Árbol (kolaborazio berezia)**

Diseinu grafikoa:

**Alfonso PerroRaro**

Produkzio-laguntzailea:

**Cristina Colmenero**

Antzezleak. Aktoreak-txotxongilolariak

**Cristina Colmenero, Leo Lanz, Christine Mackenzie eta Yanisbel Martínez**

Musikariak:

**Murtra Ensemble**

*Biolina:* Andrea Talavero, *Viola:* Bernat Bofarull, *Klarineta:* Jordi Cornudella,

*Fagota:* Antonio Abad López *Pianoa:* Carles Marigó

Koprodukzioa:

**Etcétera eta Centro Federico García Lorca**

Laguntzaileak:

**AAIICC, INAEM, Güéjar Sierrako Udala eta Granadako Udala.**

**Güéjar Sierrako Cerezas Sierra Nevada-ren laguntza eskertu nahi dugu**

*3-4 urtetik gorako publiko ororentzat.*

*Iraupena: 45-50 minutu.*







## EDUKIAK

### Ikuskizunaren helburua

- Desberdina izatea, edo desberdina sentitzea, ez litzatekeela ahulezia izan behar erakustea. Ikuskizunak mintzagai duen istorioak bidea ematen du haurtzaroan oraindik ere, tamalez, gaurkotasun handia duten gaiei buruz hausnartzeko, bullyingari eta eskola-jazarpenari buruz, hain zuzen ere. Beste gai batzuei ere heltzen die, hala nola autoestimuari eta nork bere gorputza onartzeari.
  - Jolasa haurtzaroko esparru sakratu gisa aurkeztea, eta personaren etorkizunerako garrantzitsua dela nabarmentzea.
  - Musika eta arteak balioestea, eta horien zaintza komunikazio-ondare gisa zabaltzea.
  - "Ahatetxo itsusia" ipuinaren bitartez, literaturako idazle ezagunenetakoak bere burua hobetzeko eta garatzeko egin zuen bidearen istorioa erakustea.
  - Beti egin izan dugun bezala, txotxongiloen artea inspiratzeko, hausnartzeko eta, nagusiki, publikoa hunkitzeko erabiltzea.
  - Lan plastikoa itxuraz xumeak diren elementuekin, paperarekin, adibidez, proposamen aberatsa osatzeko.
- Horrela, aberastasunaren kontzeptua pilaketa eta jabetza materialarenetik bereiztea sustatzen dugu. Izan ere, gure ustetan, kontzeptu hori haurtzaroan nabarmentzea garrantzitsua da, bizitzako etapa horretan publizitatearen eta indibidualismoaren eragina etengabea delako. Ikuskizuneko bitarteko bisualen eta Andersen-en beraren biografiaren bidez, irudimena eta barne-mundua zailtasunei aurre egiteko aliatuak izan daitezkeela erakutsi nahi dugu.



## EDUKIAK

### Ikuskizunaren bidez jorratu beharreko helburu didaktikoak

- Kultur azturak sortzea eta ikusleak txikitatik prestatzea.
- Objektuak erabiliz adierazpen-aukera berriak ezagutzea eta erabiltzea.
- Bizi izandako esperientziaren alderdiak gogoratzea eta berreraikitzea, errepresentazio ludikoko hainbat teknika artistikoren bitartez adieraziz.
- Arte eszenikoekiko zaletasuna garatzea eta jolas dramatikoetik ikasiz dibertitzea.
- Autoestimua, erantzukizuna eta sen kritiko konstruktiboa sustatzea.
- Txotxongiloen, ipuinen eta musikaren mundua ezagutzea.







## EDUKIAK

### Metodologia

- Jolasa jardueraren printzipio gisa, zeregin dibertigarria izan dadin.
- Jarduera kolektiboa, taldekakoa eta bakarkakoa konbinatzea, hala ikaskuntza indibiduala nola garapen soziala ahalbidetzeko.
- Familiak inplikatzeko, baliabideak eskuratzeko eta ikaskuntzak optimizatzeko iturri izan daitezten.

Era berean, egokia litzateke irakasleek txotxongiloen mundua ezagutzea. Horretarako, hona hemen gaiari buruzko informazioa eskuratzeko zenbait esteka:

- Etcétera konpainiaren webgunea: [titeresetcetera.com](http://titeresetcetera.com)
- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleei curriculumaren alderdi onak aletzen dizkien artikulua interesgarria, txotxongiloen proiektu bat garatuz:

[https://elpais.com/elpais/2019/11/06/escuelas\\_en\\_red/1573068391\\_345886.html](https://elpais.com/elpais/2019/11/06/escuelas_en_red/1573068391_345886.html)

- Titeresante aldizkaria: <http://www.titeresante.es/tag/educacion-y-titeres/>

## EDUKIAK

### Prentsa

<https://www.ideal.es/culturas/titeres-etcetera-re-crea-20221107000148-nt.html>

[https://www.youtube.com/watch?v=1bKn-Ye8R2kg&feature=emb\\_logo](https://www.youtube.com/watch?v=1bKn-Ye8R2kg&feature=emb_logo)

<https://www.rtve.es/play/audios/dramedias-en-radio-5/andersen-patito-feo-titeres-etcetera-teatro-real/6985431/>

[https://www.granadahoy.com/vivir/Llega-Granada-teatro-titeres-especial\\_0\\_1734427869.html](https://www.granadahoy.com/vivir/Llega-Granada-teatro-titeres-especial_0_1734427869.html)



«ANDERSEN, AHATETXO ITSUSIA»-REN GIDA PEDAGOGIKOA

## 4. Jarduerak





## IKUSKIZUNA IKUSI AURRETIK

### 1- OBRA EZAGUTU

Hans Christian Andersenen ipuina irakurri eta gero solasaldia egin dezakegu. Bilera-formatu horretan aritzeko, honako hauek errespetatu behar dira:

- Ikasleak denek elkarri aurpegia ikusteko moduan eseri behar dira, hau da, U eran edo biribilean.
- Moderatzailea hitz egiteko txandak emateaz eta iritzi guztiak errespetarazteaz arduratuko da. Hasieran, hobe da heldu baten laguntza izatea.
- Ahal bada, bi helduk (senideak) parte hartzea ezin hobea litzateke.
- Saioak, irakurketa eta solasaldia batuta, ez du 45 minutu baino gehiago iraun behar. Bukatutakoan, istorioak zein emozio (samurtasuna, tristura, poza, zoriona) eragin dizkien galdetuko diegu.

Gehiago sakondu nahi izanez gero, ikasleek gehien aipatu dituzten emozioak lan daitezke, esteka honetan eskura daitekeen informazioaren bidez: <http://www.auladeelena.com/p/proyecto-emocionario.html>

### 2- KEINU-ADIERAZPENENKO JOLASA

Hizkuntzaz gain, badaude emozioak adierazteko beste modu batzuk; are gehiago, batzuetan hitzak ez dira nahikoa izaten sentitzen duguna jakinarazi nahi dugunean. Antzerkigintzan, ondo baino hobeto dakigu hori, gure lanaren oinarria delako: nola adierazi, sortu eta ikertu emozioen bidez, hain gizatiar egiten gaituena.

Gure gorputza ibilgailu aparta da, sostengatu egiten gaitu eta bizitzan egotea ahalbidetzen digu, eta, gainera, besterekin eta munduarekin komunikatzeko hizkuntza da. Keinua unibertsala da, begirada edo irribarra bezala. Keinua adierazpena lantzeko tailerra sor daiteke, irakasle bakoitzak hizkera eta gorputzaren kontzientzia sakonki lantzeko egoki deritzonean saio-kopuruaz osatua.

Helburuak: Ikusle gisa jokatzeko ikasiko duten ikusleak. Imitatzea, desinhibitzea, inprobisatzea.

Nola jolasten da? Ikasle boluntario batzuk elkarrekin

*Antzokia  
maitasunerako eta  
hausnarketarako  
tokia izatea  
nahi dugu*



eseriko dira aukietan, gainerako ikasleei begira. Irakasleak pertsonaia edo objektu jakin batzuk proposatuko dizkie, imita ditzaten, baina soinua eta aurpegiko keinua bakarrik erabil ditzakete. Imitazioa txandaka egingo dute, baina beti muturretako batetik hasita eta ondoren denek elkarren segidan jardunez.

Esate baterako, ipuineko animaliak edo pertsonaiak imita daitezke, edo egoera zehatz batean dauden beste batzuk: goseak daudenak, hotzak daudenak edo norbaiti deika ari direnak; amaren arreta erakarri nahi duen haurtxoa; txakur jostalari bati hizketan ari zaion gizona; auto-lasterketa bat; gaizki dabilen motor bat; garbigailu bat; suziri espazial bat aireratzten.

Egoerak adierazteko, hainbat gorputz-atal erabil daitezke —eskuak, besoak, hankak—, harik eta antzezteko gorputz eta espazio osoa baliatu ahal izan arte.

Kontuan hartu beharrekoa: jolasaren xedea da parte-hartzaileek batak bestearen atzetik ekintza bera egitea, bakoitzaren zigilu berezia izango duena. Ez da ahaztu behar imitazioa eta sormena txanpon beraren bi aldeak bezalakoak direla. Imitatuz, jolasaren bidez, ikasleek beren burua askatuko dute pixkanaka, eta, azkenean, gauza bera adierazteko modu berriak aurkituko dituzte.

## IKUSKIZUNA IKUSI ONDOREN

Ikuskizuna amaitutakoan, txalotu eta oihala jaitsi ostean, antzerki-esperientziak bere bidea jarraitzen du, eta orduan izan daiteke irakasleen lana nabarmenagoa. Hortaz, obrak utzitako oihartzunak aztertzeke unea da. Antzezlana ikusi eta gero oihartzunak eta gogoetak sorrarazteko zenbait proposamen dakarkizuegu, esploratzeko pistak, zeuen proposamenekin osa daitezkeenak.

Obraren inguruan egin daitezkeen jarduerak dira, ikasleek hausnarketa egin dezaten eta proposamenari buruz dituzten pertzepzioak areago daitezen.





## 1. PAPERIZKO EBAKIGARRIAK

Andersenek biziki atsegin zuen paperezko formak moztea, eta horrek irudimena sendotu zion. Gure proposamena da haurrek irakasleak proposatutako formak moztea, obraren unibertsorekin zerikusia izan dezaketenak ala ez (paisaiak, ipuineko pertsonaiak, izaki fantastikoak...). Egokiena da ikasleek formak irudikatzen askatasuna izatea eta, emaitzak lortzeko, irakasleen laguntza jasotzea.

Erreferentzia moduan, Andersenek beraren ebakigarrietako batzuk erabil daitezke, Interneten erraz eskuragarriak. Besteren artean, esteka hauen bidez:

<https://andersen.museumodense.dk/klip/billedliste.asp?language=en>

<https://www.pinterest.es/search/pins/?q=paper%20cut%20andersen&rs=typed>

Zenbait tutorial erraz:

<https://youtube.com/watch?v=fKhSb1E5XSU>

<https://youtube.com/watch?v=INoIX62Aubs>

<https://youtube.com/watch?v=I3HIXROpZ5q>

Jarduera hau Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleekin egin daiteke.

## 2. ANTZOKITXOA ETA PERTSONAIAK

Obran, beste ideia batzuen artean, artea gauza gutxirekin egin daitekeela nabarmendu nahi dugu, eta jolastu ere gauza gutxi izanik jolas daitekeela, betiere irudimena izanez gero. Gure proposamena da antzokitxo bat sortzea, kartoiz edo oihalak nolabaiteko forma emanda jarritz.

Andersenek garaian, etxean paperezko edo egurrezko antzerkitxoak edukitzea oso ohitura hedatua zen Danimarkan. Familiak etxeko egongelan biltzen ziren arratsaldea beren obra gustukoena antzetzten emateko eta, horrela, negu gorria goxoago igartzeko. Era berean, esan bezala, Andersenek aitak zurezko antzerkitxo bat egin zion semeari, eta jostailuak, jolasari eta arteari esker, haurraren barne-mundua garatzen lagundu zuen. Barne-mundu horrek bere nortasunaren oinarriak ezarri zituen, eta, bere biografian adierazi zuenez, bere helburuak eta ametsak zein ziren jakiteko balio izan zion.

Gure proposamena da «Ahatetxo itsusia» edo Andersenek beste ipuin batzuk antzetztea, «Sirenatxoa», «Pospolo-saltzailea», etab.



Likasleek ikasgelan topatzen dituzten objektuekin sor ditzakete ipuinetako pertsonaiak, Andersenek egin behar izan zuen bezala. Pertsonaiak iradokitzen diguten formari, egin dezaketen soinuari edo koloreari erreparatuta bilatzen ditugu. Horrela, siluetaren eta formaren espektroa zabaltzen dugu, pertsonaiak modu sensorialean ezagutzen eta haien esentzia ulertzen hasteko.

Hala, lehenik eta behin, zein ipuin antzeztuko dugun erabaki behar dugu; irakurri ondoren, guztiok batera pertsonaien zerrenda egin dezakegu. Ondoren, hurrek denen artean pertsonaia guztiak azter ditzaten saiatuko gara: zer forma duten, zer-nolako izaera, nola mintzatzen diren, nola mugitzen diren, etab. Ideia-jasa egindakoa, ikasleek eurek bilatuko dute pertsonaiak ikasgelan dauden objektuekin antzezteko modua; dena den, jakina, eskularen bat egin dezakegu pertsonaiaren ezaugarriak osatzeko.

Ariketa hau taldean egin behar da; ikasle-kopuruaren arabera, hainbat talde egin daitezke, baterako azterketa egin ostean objektuak bila ditzaten eta obraren beren bertsioa entsea dezaten.

Likasleek ariketan aurrera egiteko zenbatetsitako denbora igaro ondoren, ipuinaren beren bertsioa eraikitako antzerkitxoan antzez dezakete.

Ariketa egiteko dagoen denboraren arabera, bertsio guztiak antzez daitezke; edo, bestela, ipuina hainbat pasartetan zati daiteke, talde bakoitzak bat antzezteko eta, horrela, gauza beraren gaineko bertsio desberdinak ikusteko.

Zenbait tutorial erraz:

<https://youtube.com/watch?v=lpPbGjn8MJQ>

Jarduera hau Haur Hezkuntzako ikasleekin (laguntzarekin), Lehen Hezkuntzakoekin eta DBHkoekin egin daiteke.



### 3. IPUINEAN AGERI DIREN GATAZKEI BURUZKO EZTABAIDA

Solasaldi-erako eztabaida ere egin daiteke, honako gai hauek hizpide:

- edertasuna
- eskola-jazarpena
- desberdina izatea
- artea.

Haur eta gazteei beren artean hitz egiten uzten badiegu eta guk galderak eginez edo gaiak proposatuz bideratzen baditugu, pentsatzen dutena adierazten ikas dezakete, baita euren artean errealitateari buruzko iritzi eta pertzepzio desberdinak ikusten ere.

«Andersen, ahartetxo itsusia» ikuskizunaren sortze-prozesuan, jorrazeko zailak izan daitezkeen gai jakinei heldu nahi izan diegu, bullyingari eta mota orotako jazarpenari, hain zuzen ere. Errespetuz, sinesgarritasunez eta informazioz tratatu ditugu, errealitate mingarri horien ganean eragiten dutenaz jabetuta hitz egin ahal izateko eta, aldi berean, gure ikuspegi artistikoaren bidez ikuspuntu adiskidetzaila proposatzen saiatzeko.

Batzuetan, antzerkiak, beste ondorio batzuen artean, gogoeta sortzen du, eztabaida, eta tresna garrantzitsu eta beharrezkoa deritzogu bai pertsonen prestakuntzarako bai gizartearen hobekuntzarako.

Ikasleek bullyingari moduko gai zailei buruz zer pentsatzen duten adierazteak, eta aldi berean besteen ikuspegia entzuteak, ikuskera zabaltzen die; ondorioz, ziurrenik, gerora modu eraginkorragoan ohartuko dira iseka-, marjinazio- edo gaitzespen-egoerez, kasu honetan.

Halaber, edertasunaren kontzeptua leku interesgarria iruditzen zaigu filosofiaren ikuspegitik, ikuspegi humanotik, hausnartzeko. Gure ustez, begirada poetikoa eta ederraren erlatibitatea sustatzea lagungarria da hurrek edertasunarekin modu sakonagoan, ez hain azalekoan, era hunkigarriagoan, konekta dezaten.

Solasaldia hasteko, ideia eta/edo galdera hauek balia daitezke ikasleak bideratzeko:

- Edertasuna eta amodio propioa. Zisnea eta edertasuna, zergatik irudikatzen da hainbeste zisnea artelanetan?
- Obrako pertsonaiak zergatik dira gizakiak bezala jantzitako animaliak?
- Besteekiko begirunea eta desberdinaren garrantzia.



- Ondo sentiarazten gaituena ezagutzea, amodio propioarekin eta besteekin berriro bat egiteko.
- Zergatik sortzen da gaitzespena? Nola erreakzionatu beharko genuke gertatzen denean edo norbait gertatzen zaiola ikusten dugunean?

Jarduera hau Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleekin egin daiteke.

<https://youtube.com/watch?v=AsXEIgwOKpA>

Irakasleei «Ahatetxo itsusiak. Erresilientzia: Zoritxarreko haurtzaroak ez du bititza osoa erabakitzen» irakurtzea iradokitzen diegu, Boris Cyrulnikena:

<https://www.casadellibro.com/libro-los-pati-tos-feos/9788490321997/2082317>

#### 4. MUSIKA

«Andersen, ahatetxo itsusia» ikuskizunean agertzen diren orkestra-instrumentuak identifikatuko ditugu: biolina, biola, klarinetea, fagota, pianoa eta saxofoia. Ondoren, ikasleak taldetan banatuta, Interneten instrumentu bakoitzari buruzko informazio laburra bilatuko dute, baita instrumentuok entzuten diren hainbat musika-pieza ere. Informazioa bildutakoan, gainerako ikaskideekin partekatuz eta aurkitu dituzten musika-piezak erakustera gonbidatuko ditugu.

Informazio guztiaren berri izan eta gero jolas bat egingo dugu denon artean: irakasleak pieza klasikoak jarriko ditu eta hurrek, soinuari erreparatuta, instrumentuak identifikatu beharko dituzte.

Hainbat pieza klasiko erabil daitezke, besteak beste YouTube edo Spotify plataformetan entzun daitezkeenak. Esate baterako:

- Biolina, pianoa, biola (+ txeloa) / Bach, Ave Maria : <https://www.youtube.com/watch?v=W-AYU2pu6bQ>
- Fagoterako kontzertua (Mozart) : <https://www.youtube.com/watch?v=4u7v-MPLDjc>
- Saxofoia, Miles Davis: <https://www.youtube.com/watch?v=GxxP7iAIU7I>

Adibide zehatzak dira, baina askoz gehiago aurki ditzakegu, jakina.

Jarduera Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleekin egin daiteke.



## 5. TXOTXONGILOAK

Hagaxka-txotxongiloak, ikuskizunean darabiltzagunak bezalakoak, eraikitzeko eta maneiatzeko errazak dira (itxuraz), Lehen Hezkuntzako ikasleek eta, jakina, DBHkoek baliatzeko modukoak:

[https://es.wikipedia.org/wiki/T%C3%ADtere\\_de\\_varilla](https://es.wikipedia.org/wiki/T%C3%ADtere_de_varilla)

Denborak eta egoerak txotxongiloak sortzeko aukera ematen badigute, txotxongilo-jolasak panpinekin, peluxeeekin, jostailuekin edo eguneroko bizimoduko gauzeekin egin daitezke. 3 lagunek emango diete bizitza jolasean, rolak banatuta eta ahotsak antzetzuz. Hainbat hirukote ere jar ditzakegu elkarerraginean.

Peluxerik erabili nahi ez bada, irudi antropomorfoak ere sor daitezke, azkar eta eraginkortasunez, paper-orri jarraituak, goma-apar zatiak eta/edo oihalak erabiliz.

Ariketa hau ezin hobea da talde-lana, entzuketa eta lidergoa bultzatzeko.

Haur Hezkuntzako ikasleekin (laguntzarekin),  
Lehen Hezkuntzakoekin eta DBHkoekin egin daiteke.





«ANDERSEN, AHATETXO ITSUSIA»-REN GIDA PEDAGOGIKOA

# 5. Konpainia



Enrique Lanzek eta Fabiola Garridok sortu genuen, 1981ean, Granadan. Berrogeita bi urteko ibilbidean, herrialdeko konpainiarik ospetsuenetakoa bihurtu gara txotxongilo-antzerkiaren alorrean. Gure lanaren bikaintasuna eta moldakortasuna zorrotasunaren eta abangoardiaren sinonimo dira. 2014an, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoen Sari Nazionala eman zigun. 2017an, Granadako Udalak, Prestigio Turistiko Nazionalaren Saria. 2021ean, Güéjar Sierrako Udalak, konpainiaren egoitza dagoen herrikoak, bere saririk garrantzitsuen eskaini zigun, Urrezko Gerezia saria.

Gure lana txotxongiloekin antzezten ditugun publiko guztientzako obra musikalak dira. Espainian, liderrak gara genero horretan, eta gure obrarekin antzoki eta jaialdi handietako ateak ireki ditugu, orain beren ohiko programazioetan txotxongiloak ere hartzen baitituzte. Horrela, gure urrats berak egiten ari diren hainbat konpainiari bidea erraztu diegu, eta Granadan titiritero askoren eskola eta harrobia gara. Gure ikuskizunen bereizgarriak poesia, estetika eta ikerketa dira (historikoa, artistikoa, teknikoa), proiektu bakoitza egituratzen duten funtsezko eragileak. Horri esker, obra bakoitza desberdina da, apropos, eta berrikuntza etengabea denez, I+G+b ohiko jardunbidea dugu. Gure lan-ildoen artean, halaber, txotxongilo-antzerki tradizionalaren eta garaikidearen ikerketa, dokumentazioa eta zabalkundea dago. Horren adibide, honako proiektu hauek:

- “Herriaren arima”. Munduan zeharreko txotxongilo-tradizioei buruzko artxibo dokumentala, 2009tik gaur egun arte.
- “Txotxongiloak. Etcétera 30 urtez”. Erakusketa Granadako Zientzien Parkean, 2012-2014, 800.000 pertsona inguruk bisitatua
- “Haitzulotik zinemara, txotxongiloen bidezko bidaia”. Denboran eta kulturetan zeharreko erakusketa, protagonista txotxongiloak eta objektu animatuak dituen. Erakusketako piezak konpainiaren bildumakoak dira.
- Txotxongilo-ekitaldien zuzendaritza artistikoa eta ekoizpena, besteak beste Quiquiriquí Festibalarena, Federico García Lorca zentroan, Granadan.

2021ean, “Cueva Secreta” ireki genuen, natura, artea eta gastronomia uztartzen diren gunea, Güéjar Sierran. Publikoarekin zuzeneko loturak ezartzeko lekua, ikuskizunen, tailerren eta arte eszenikoak ingurune naturalarekin elkarrizketan jartzen dituzten jardueren bidez.

42 urterekin, Etcétera-n aurrera jarraitzen dugu, gure ikusleekin dugun konpromiso sendoari eutsita, gure erantzukizun sozialaz eta eskaintzen dugun zerbitzu publikoaz jabetuta, eta lehenengo eguneko ilusio bera izanda.







## HARREMANETARAKO

Enrique Lanz - Yanisbel Martínez

C/ Arroyo de la Greda s/n 18160 Güéjar Sierra Granada

[titeresetcetera.com](http://titeresetcetera.com) / [info@titeresetcetera.com](mailto:info@titeresetcetera.com)

+34 679 934 450